

Kaixo familia,

Akordio horren bitartez, ELKAR liburu-dendak %5eko beherapena egingo du Batxilergoko liburuetan (DBHkoetan legez ezinezko da, tamalez), eta haien bitartez erositako testu-liburu kanpaina osoko %5 Guraso Elkarteari emango dio.

Aurten, gainera, bide hori erabiltzen duenari %10eko beherapena egingo zaio Bilbon ELKARen Iparragirre 26ko liburu-dendako paper-gauzen sailean (koadernoak, boligrafoak, motxilak ...)

Esan beharrik ez dago, ELKARen bidez egindako erosketa hau guztiz borondatezkoa dela, baina erosoaz izateaz gain denon mesederako denez, bide hori erabiltzera animatzen zaituztegu.

Eskaera egiteko bi modu daude:

- 1.- **Internet bidez** (<http://www.elkar.com/orobiogoitia>) **uztailaren 31 arte**.
- 2.- **Eskuz**, eskolan eskuratu ahal dituzuen eskaera-orriak betez, **uztailaren 18 arte**.

Liburuak jaso:

**Irailaren 4an** (osteguna) jasoko dira liburuak.

- 1.- Eskolan bertan (12:00 – 13:30). Diruz edo kreditu-txartelarekin ordaindu ahal izango dira. Ordainketa aurretik egin bada, ordainketa-ziurtagiria erakutsi beharko da.
- 2.- Otxandion bertan, Kultura Etxean (09:30 – 11:00). Diruz edo kreditu-txartelarekin ordaindu ahal izango dira. Ordainketa aurretik egin bada, ordainketa-ziurtagiria erakutsi beharko da.

Besterik gabe, agur,

**Juan Orobiogoitia DBHIko guraso-elkartea**